

ikastola



LANBIDE HEZIKETA HELDULEKU SEGURUA



...surfa, piraguismoa, ikastaroak, kontzertuak,
hizkuntzak, lehiaketak, kirolak, campusak...

Udan gelditu barik



...plan pila uda honetarako
eta zozketak,
hizkuntza-ikastaroetan,
saskibalo-i-campusetan,
mendi-ibilaldietan... begiratu
hemen: www.bbk.es

Eta **Athletic-eko
motxila hau opari***
Gaztedi Plana orain
irekitzen baduzu.

**BBK GAZTEDI
PLANA**



Hemen
gaitu-
zu

bbk²



*Sustapena indarrean egongo da,
gutxienez 300€ko saldoa duen kontua
irekitzen baduzu. Dagoeneko Gaztedi
Plana baduzu, gonbidatu lagun bat Plana
egitera, eta motxila bana eroango duzue.
Izakinak agortu arte.



- 3 ERREPORTAJEA: LANBIDE HEZIKETA, BIHARKO PROFESIONAL KUALIFIKATUEN AUKERA
- 8 IKASELKAR, ENPRESA BERRIA EUSKAL EDIZIOGINTZAN
- 12 ARABA EUSKARAZ: HERRIAREN ERDIA EUSKALDUNTZEN LAGUNDU DUEN IKASTOLAREN ALDEKO FESTA
- 16 URRETXINDORRA, 10 URTE DRAMATIZAZIOA LANTZEN
- 18 SANTO TOMAS LIZEOA. 50 URTE, ETA INNDARREAN
- 20 HEGOALDEKO EUSKALTZALEEN BULTZADA SENTITU DU HERRI URRATSEK
- 22 JUUL KANPAINA, BIZI-BIZIA

EDITATZAILAEA:
EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
Ikastolen Extea,
Errotazar bidea, 124
20018 DONOSTIA
Tel.: 606 33 41 45

KOORDINATZAILAEA:
Zurire Mendizabal
aldizkaria@ehi.ikastola.net

ERREDAKZIOA:
Joxean Agirre eta
Eva Domingo

EUSKARA ZUZENTZAILAEA:
Imanol Arfola

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Txema Garzia Urbina

INPRIMATZAILAEA:
GERTU Inprimategia.
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

EKAINA 2011

192

IKASTOLA ALDIZKARIA  www.ikastola.net


ERREPORTAJEA



LANBIDE HEZIKETA,

BIHARKO PROFESIONAL KUALIFIKATUEN AUKERA

Ematen diren zikloen abantailak aipatu dizkigute **zuzendariek**



ik2

LANBIDE HEZIKETA
BIHARKO PROFESIONAL KUALIFIKATUEN AUKERA



guztiak gazteleraz edo ingelesez daude eta Eraikuntzan, esate baterako, bi hizkuntza horietara jo behar izaten dugu”, erantsi zuen Arizmendiko Edurne Erasuskinek.

“Lanbide Heziketaren arloan Hezkuntzako beste arloetan bezain garrantzitsuak dira Europako erreferentziak. Europako herrialde aurreratuenetan Lanbide Heziketa egiten duten ikasleen portzentajeak %80 ingurukoak dira. Baina ez da hori bakarrik; ikuspegia ere ezberdina da. Alemanian, esate baterako, ingeniaritza ikasketak egin nahi dituenak Lanbide Heziketako ziklo bat egiten du aurretik. Ohitura bat da herrialde horretan, ibilbide oso logikoa iruditzen zaigu”, esan zuen Ana Mongek. “Gure inguruko enpresek oso ondo baloratzen dute eta gustukoak dituzte ibilbide horri jarraituz kualifikatzen direnak. Bere kompetentzia praktikoak garatuagoak dituzte”, erantsi zuen **Joxe Mari Erkizia**.

Lanbide Heziketaren aukerak dituen abantailak aipatzen hasita, beste bat ere aipatu zuten. “Beste abantaila bat aipatuko dut: adin horretan askotan gazte batek ez du garbi ikusten zer egin nahi duen, eta gure zikloek sektorea berehala ezagutzeko aukera ematen diete. Oso denbora gutxian ikusten dute aukeratu duten lanbidea gustatzen zaien edo ez”, gogoratu zuen **Idurre Maoartuak**, Ibaizabalgo zuzendariak.

Autoenplegua bultzatzen ari dira. Enpresa berrien mintegi bat dute, esate baterako, Txorierrin. “Lehen kalitatearen aldeko apustua egin genuen bezala, orain enprendizaia lantzen ari gara eta autoenplegua bultzatzen. Ziklo askotan azken proiektu gisa, enpresa bat sortu behar izaten dute”, esan zuen Mongek. •

IKASTOLA BAKOITZA BANAN-BANAN

TXORIERRI (Maribi Marco): 350 ikasle ditugu arautuan eta kopuru bera ez arautuan. Lanbide Heziketako zazpi ziklo dauzkagu, erdi mailako bat, Mekanizazioa, eta sei goi mailakoak: bi Elektronikakoak, bi Mekanika arlokoak, Inguru Kimika eta Marketing-a. Erdi mailatik goi mailara batxilergoa egin gabe pasatzeko froga bat gainditu behar izaten da eta prestatzeko ikastaroak ematen ditugu.

ARIZMENDI (Edurne Erasuskinek): Guk, Arizmendin, hiru familia ematen ditugu: osasungintzan erdi mailako zikloa, eraikuntzan bi ziklo eta kirol arloan goi mailako ziklo bat. Guztira, 150 bat ikasle ditugu. Erdi mailako ziklotik goi mailakora jauzia egin nahi duenak sarrera frogak egin behar du, eta goi mailako zikloetatik unibertsitatera jauzia egitea ere oso arrunta da.

OTEITZA (Joxe Mari Erkizia): Lanbide Heziketako formazio arautuan bi familietako (mekanika eta elektrika) sei ziklo dauzkagu, erdi mailako bi, Mekanizazioa eta Instalazio Elektriko eta Automatikoak, eta goi mailako lau: bi Mekanika arlokoak, Elektronikako bat eta Mantenuko beste bat. 160 ikasle ditugu arautuan eta 500 batek jaso dute formazioa ez arautuan azken ikasturtean. Daukagun Batxilergoa ere egokia da ondoren gure familietako ziklo bat egin nahi dutenentzat.

INMAKULADA (Ana Monge): Zazpi ziklo ditugu, Osasungintzan bost (Farmazia, Erizaintza, Osasun dokumentazioa, Diagnosi Irudia eta Radioterapia) eta bi Gizarte Arloan (Gizarte Integrazioko eta Haur Hezkuntzako teknikariak). Horietako bi arratsaldeko ordutegian ditugu, lanean ari direnei aukera errazteko. Zazpi ziklo horietatik bi erdi mailakoak dira eta bost goi mailakoak. Eta erditik goi mailara sarrerako froga prestatzeko ikastaroak ere ematen ditugu guk. Arautuan 360 ikasle inguru ditugu.

BARANDIARAN-ZURRIOLA (Lizar Irazusta): Guk daukagun heziketa ziklo bakarra Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapena da. Berez 25 plazako zikloa bada ere, baimen berezi bat eskatuta dugu, eskaera handia dugulako eta 30 arte onartu dizkigute. Maila bakoitzean, beraz, 30 ikasle ditugu eta jendea kanpoan utzi dugu. Datorren urtean egingo dugu formatu aldaketa, LOGSEtik LOEra aldaketa, alegia. Gaur egun kiroldegietan dauden beharretara gehiago egokitzeko egingo da aldaketa hori.

IBAIZABAL (Idurre Maortua): Guk Batxilergoa eta Lanbide Heziketa ditugu eta bigarren arlo honetan Haur Hezkuntza ari gara ematen, HHko hezitzaileak prestatzen dituen zikloa, alegia. Orain lau urte jarri genuen martxan. 44 ikasle dauzkagu bi mailetan. Beteta daukagu. Aurten, esate baterako, 35 eskaera utzi ditugu kanpoan. Badaude zikloa bukatu eta Magisteriora doazenak ere.

IBAR EZKERRA (Fernando Garrigos): Hamargarren urteurrenean, Ibar Ezkerra Lanbide Ikastolak lanbide heziketako zentro berri bat zabalduko du Bilbon, Miribilla auzoan hain zuzen, Bilboko Arenaren ondo-ondoan. Ibar Ezkerra Lanbide Ikastola Portugaleten jaio zen 2001ean, lanbide heziketa euskaraz emateko xedez. Ibar Ezkerra Ikastola Informatikako eta Kiroleko eta Jarduera Fisikoko lanbide arloetan dihardu. Ikasleria ondo trebatuta eta prestatuta ateratzen da, bai lan egiteko, bai goi mailako zikloetan zein unibertsitatean ikasten jarraitzeko.

LAS VENTAJAS DE LA FORMACION PROFESIONAL

La primera ventaja de la Formación Profesional es que es la opción que mejor asegura la cualificación para entrar en el mercado laboral. La Formación Profesional que se imparte en Euskal Herria es pionera, innovadora y responde a las necesidades del mercado actual. Pero hay más. La Formación Profesional que se imparte en los centros de la red de ikastolas garantiza asimismo un nivel óptimo

en el dominio del euskara. Los directores de estos centros creen que es la mejor salida para los jóvenes que al terminar ESO o el Bachillerato no tienen muy claro lo que les gusta. “La FP permite conocer la profesión elegida con la mayor celeridad. Si quieren continuar estudiando en la universidad, tienen también las puertas abiertas”.

LES AVANTAGES DE LA FORMATION PROFESSIONNELLE

Le premier avantage est que la formation professionnelle est le meilleur moyen d'entrer dans le monde du travail avec une qualification. La formation professionnelle dispensée en Euskal Herria est pionnière, innovatrice et répond aux nécessités actuelles du marché. Mais plus que cela, la formation professionnelle dispensée dans les ikastola garantit également une pleine maîtrise de l'euskara. Les

directeurs des centres croient que c'est le choix idéal pour les élèves ne sachant pas vers quelle branche se tourner après le baccalauréat. “La formation professionnelle permet de connaître au mieux le métier choisi. Elle offre par ailleurs la possibilité de poursuivre des études à l'université”.

PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Gure MUndura etortzeko prest?



ATE IREKIAK
Goi Eskola Politeknikoa
Biteri Ikastetxe Nagusia
ARRASATE - EKAINAK 11
larunbata, 10:30

ELKAR ARGITALETXEAREN ETA IKASTOLEN ELKARTEAREN ARTEAN SORTUTA

ikaselkar

enpresa berria euskal ediziogintzan



ikaselkar

Enpresa berri bat sortu da Euskal Herriko edizioaren alorrean. Ikaselkar dauka izena. Ikastolen Elkarte eta Elkar argitaletxearen baturatik dator. Eskola curriculum berriaren erronka dago sorburuan, euskal curriculum eta konpetentzietan oinarritutako hezkuntza ezaugarri dituelarik, nahiz eta eskaintza integrala egiteko asmoarekin jaio den. Berez, bi entitateen arteko hogeitau urte baino gehiagoko lankidetzari enpresa taxua eman zaio ekimen berri honekin.



Modernitatearen harira Bilbon eraberritutako Alhondigan, Bastida aretoan, egin zen Ikaselkar-en aurkezpen publikoa. Ehun lagun inguruk erantzun zioten gonbiteari. Ikastoletako eta Elkar-eko etxekoekin batera, hezkuntzako eta euskalgintzako aurpegi ezaunak zeuden ekitaldian. Saioa hasi aurretik prentsaurrekoa izan zen. Hego Euskal Herriko komunikabide esanguratsu guztiek ekarri zuten gertakariaren berri.

Izan ere ez zen ezustean igarotzeko moduko gertakaria. Euskal Kulturaren eta Hezkuntzaren azpiegitura produktiboak gutxi dira, eta lehian erkatzerako orduan ez hain sendoak. Handienekin lehiazteko asmoz sortu da edizio enpresa berria, abangoardiaren aldeko apustua eginez erreferentzia bihurtzeko. Mezua argi jaso izan da euskal hezkuntzaren eta kulturaren eremuko eragileen artean.

Kalitatea beti izan da ikurra ikastolentzat. Onenak izatea ez da meritua, beharra baizik. Onenak izateak ahalbidetzen baitu beste modu batean ziurrenik ezina litzatekeen aitorza. Ikastolentzat baliagarria dena, bestalde, baliagarria da euskal kultur egiturentzat ere.

Ikastolek Euskal Curriculumaren alde egindako apustuaren testuinguruan kokatu behar da, bestalde, enpresa berri hau. Euskara izan zen

ikastolen ikurra XX. mendean, eta euskal curriculumak XXI. ean. *“Zuek lehenago aspertuko zarete entzuteaz ni adierazteaz baino”*, esan zuen **Koldo Tellituk** ekitaldian.

Ekoizpen egitura propioa helburu horretara egokitzen ari da ikastola taldea. Hori nabarmena da Ikastolen Elkartearen barne antolaketa orokorrean, bereziki materialgintzara eta

profesionalen prestakuntzara bideratutakoan. Testuinguru horretan kokatzen da Ikaselkar bera ere, elkarte mugatuko ereduari jarraiki sortutako enpresa.

Euskal Kulturaren eta Hezkuntzaren azpiegitura produktiboak gutxi dira, eta lehian erkatzerako orduan ez hain sendoak. Handienekin lehiazteko asmoz sortu da edizio enpresa berria, abangoardiaren aldeko apustua eginez erreferentzia bihurtzeko.



MAIATZAREN 4AN AURKEZTU ZEN IKASELKHAR ENPRESA BILBOKO ALONDEGIAN. EUSKAL KULTURA ETA KOMUNIKABIDEEN AURREAN, ARGAKIETAN HURRENEZ HURREN, KOLDO TELIITU, ENPRESA BERRIAREN LEHENDAKARIA; J. IÑAKI ETXEZABETA, SORKUNTZA-ZUZENDARIA, MIKEL AGIRREZABALAGA, EDIZIO-ZUZENDARIA ETA JOSE MARI SORS, LEHENDAKARI-ORDEA.



Alhondigako ekitaldian enpresa berriak biltzen dituen bi taldeen batura ekarri duten faktoreez asko hitz egin zen. Berrikuntzaz asko hitz egin zen, bereziki Elkar-eko zuzendari nagusia den Joxe Mari Sors-en aldetik. Baina horrekin batera bien artean konpartitutako balioak aipatu ziren. Euskal Herria ulertzeko modu bat eta horrekiko konpromisoa azpimarratu zen. Ekimen sozialarekiko atxikimendua ere bai, besteak beste.

ESKAINZA INTEGRALA DAKAR

Ikaselkar ediziogintzan eskaintza integrala egiteko asmoz sortu da. Hezkuntzatik abiatuko da, baina ez da horretara mugatuko, kultur esparru desberdinak kontuan hartuko dituelarik.

Euskarrietan ere gaur egun oraindik nagusi den liburuari erreparatuta, teknologia berrietan oinarritutako gero eta material gehiago merkaturatzeko asmoa dauka, ez bakarrik merkatuari erantzunez, hauen aldeko apustua eginez baizik.

Materialen edukietan balio erantsi nabarmena aurkituko da, baina ez da bakarra izango. Material horien harira eskainiko den profesionalen prestakuntza

izango da eskaintzaren ezaugarri eta beste balio erantsietako bat.

Enpresa berriaren planifikazioaren arabera, 2013 izango da curriculumerako material berriak merkaturatzeko lehen urtea. Hortik aurrera urtero-urtero aterako da materiala, hezkuntzako etapako guztiak estali arte.

Baina Ikaselkar-en katalogoak badauzka jada 381 titulu eskaintzeko. Material egokituak dira, liburutik euskarri informatikoetara eramanez, edo osagarriak. Horietatik 171 eskola ekintzarako material nagusi edo oinarritzakoak dira; gainerakoak, berriz, osagarriak.

NUEVA EMPRESA EDITORA

Ha nacido una nueva empresa editora, Ikaselkar, fruto de la unión, en este ámbito, de Elkar Argitaletxea e Ikastolen Elkarte. Adopta el modelo de sociedad limitada, dando forma empresarial a un trabajo en común de ambas entidades en el sector de la edición que tiene más de veinte años de historia. La fuente de inspiración de Ikaselkar es el currículo euskaldun, y aunque el campo educativo será preferente para la nueva empresa, anuncia una oferta integral para el sector cultural

NOUVELLE MAISON D'ÉDITION

La maison d'édition Ikaselkar est née de l'union entre Elkar Argitaletxea e Ikastolen Elkarte. Montée en SARL, le travail commun des deux entités dans le secteur de l'édition depuis plus de vingt ans s'en trouve mieux structuré. Ikaselkar trouve son inspiration dans le curriculum basque mais au-delà du simple champ éducatif l'offre sera aussi culturelle.

UMEAK

MARRAZKILARI ETA IDAZLE

III. ELKAR ILUSTRAZIO ETA IPUIN LEHIAKETA

GORDETA ZEUDEN EHUNKA ARTISTA AZALERATU DITU ELKAR ARGIALETXEAK ANTOLATU BERRI DUEN 3. ILUSTRAZIO ETA IPUIN LEHIAKETAK. Mitxel Murua idazleak demokraziaren inguruan idatzitako "Josetxo Hargina" ipuin politean inspiratutako 3.562 ilustrazio egin dituzte Euskal Herri osoko ikasle txikienek eta Alex Orberen ilustrazio bati begira 511 ipuin idatzi dituzte helduxeagoak

Argialetxeak maiatzaren 28an antolatu zuen ekitaldian saria jasotzera igo ziren irabazleak. Ilustrazioaren sailean Maria Iturbek (Amurrio) irabazi zuen lehen saria eta Danel Badiolak (Donostia) bigarrena HHko 2-6 urtekotan; Naroa del Río Rejónek (Arrigorriaga) lehena eta Naroa Asensio (Errenteria) bigarrena LHko 1-2 mailan eta Izaro Irastorzak (Errenteria) lehena eta Itsaso Lopezek bigarrena LH 3-4 mailan.

Ipuinen sailean, Maddi Hairak (Uztaritze) eraman zuen lehen saria eta Iñaki Arizmendik (Azpeitia) bigarrena LH 5-6 mailan; Ekhine Legorburuk (Lezo) lehena saria

eta Aitor Servier-Etchechurik (Azkaine) bigarrena DBH 1-2 mailan eta Maddi Sarasuak lehena eta Pablo Elosegik bigarrena DBH 3-4 mailan.

Antolatzaileek adierazi dutenez, parte hartzeak nabarmen egin du gora ilustrazioaren sailean eta ipuinetan kopurua bere horretan mantendu bada, epaimahaia, lana arintzearen, gela bakoitzeko onenak aukeratzeko eskaria egin zuelako izan da. Partaide erdiak inguru gipuzkoarrak badira ere, Euskal Herri osora zabaldu da lehiaketa eta bizkaitarren, nafarren eta arabarren presentzia sendotu egin da. Ipuinen %10 inguru Ipar Euskal Herrikoak izan dira eta nabarmentzekoa da sail horretako irabazleen erdiak bertakoak izan direla. Errioxatik ere sei ipuin jaso dituzte.

Ilustrazioaren sailean, epaimahaiko Alex Orbe bera eta Ainhoa Lukas ilustratzailea izan dira, Elkar Megadendako haur literaturaren arduradun bat tartean zutela eta ipuinetan Jexus Mari Mendizabal idazleak eta Antxiñe Mendizabal eta Itziar Irastorza editoreek egin dute aukeraketa.





A MAILA 1. SARIA: MARIA ITURBE




2. SARIA: DANEL BADIOLA



B MAILA 1. SARIA: NAROA DEL RIO

2. SARIA: NAROA ASENSIO



C MAILA

1. SARIA: IZARO IRASTORZA

2. SARIA: ITSASO LOPEZ

Esperantza bidean

Aspaldiko garai batean bazen Marimuki izeneko printzesa xarriant bat. Urteak zeramatzan gaztelu zahar batean preso. Egunak malkotan igarotzen zituen, mokanes arrosak xukatzen astirik ez zuela. Hala ere atsekabe hartan goizero bizirauteko indarra ematen zion adiskidea aurkitua zuen, penak hegan eramaten zizkion txori bat. Eguzki amandrea jalgi orduko etortzen zitzaionean, Marimukik honela kantatu ohi zion: "Goizian argi hastian... Laster duan aidian".

Handik hurbil, mutil prestu bat sendotzen ari zen. Halako batean, bizitzako abentura garrantzitsuenean murgiltzeko erabakia hartu zuena. Askok horretan bizia galdu bazuten ere bere hautuak ez zuen jada atzera bueltarik, gosta ala gosta bere ametsetako printzesaren bila abiatuko baitzen. Zaldi bizkorrena harturik ezpata eta lantza gerrian, trostan bideari ekin zion.

Erortzeaz ziren arroka izugarriak saihestu, dragoi ikaragarria garaitu, labirinto amaigabe batetik bizirik atera, oihaneko pizti zitalei aurre egin eta krokodilo beldurgarri bat atzean utzi zituen. Baina haren hitzetan ez zen etsipena existitzen, hortaz, ilargiak bere hamabosgarren bira egin zuenerako ametsetako gaztelura iritsi zen. Ez bat ez bi, printzearen ezpata abilak, bi zaintzaileak lurtean utzi zituen.

Korrika batean, Marimukiren ziegara heltzeko azken eskailerak igo zituen. Gelatxo hartan lehen pausoa ematearekin, printzesak gainera salto egin zion. Orduan printzeak besoetan harturik, zaldiraino eraman zuen eta Marimukik txoriari azken agurra bidaltzen ziola, abiatu ziren munduko printze eta printzesa zorionsuenak, berriz sekula zorigaitzik agertuko ez zen bidean.

"BAM BAM BAM"

Zarata latz horrek jautsarazi zuen Kattalin errealitatera. Senar mozkorraren oin hotsek ezin neskatxaren egia gorde. Negar malko bat isuri zitzaion matelan beheara, sendatu gabe zituen ubelduren gainetik beste batzuen jasateko adorerik ez zuela. Kolpeez ahaztu nahian pentsatu zuen munduko bortizkeria guziak ez ziola inoiz amestea eragotziko. Marimukiren antzera, infernutik ihes egiteko ez zitziola printze salbatzailerik etorriko baina bere baitan aurkitu beharko zuela irteteko indarra. Eta halaxe berak ere etsipen hitza hiztegitik desagerrarazi nahian bere buruari agindu zion noizbait zorigaitzik gabeko bide hark berearekin egingo zuela topo.

MADDI SARASUA

araba:

ARABA EUSKARAZ

Herriaren erdia euskalduntzen lagundu duen ikastolaren aldeko festa

Miraria dirudi. Orain 40 urte herritar bakan batzuek baizik ez zuten hitz egiten euskara. Gaur, erabilera oso apala den arren, %52 euskaldunak edo ia euskaldunak dira. Laudio Ikastolak aurten egin ditu 40 urte eta bera izan da aldaketa ikusgarri horren motorra. Araba Euskaraz ospatuko dute ekainaren 19an. Bilbotik 22 kilometrora. Donostiatik eta Gasteiztik eroso. Joateko mila arrazoi daude. Ez joateko aitzakiarik bat bera ere ez. Aurtengo edizioak gaurko ikastolaren atariko edo aurrekari izan zen beste ikastola, Galmaka Ikastola, eta bere sortzaileak omenduko ditu.



BAGARE da leloa. Urteak pasatu dira Gontzal Mendibilek "ARABAN

BAGARE, GIPUZKUN BAGERA, XIBERUN BAGIRE, TA BIZKAIAN BAGARA" lehen aldiz kantatu zuenetik, ia 40, eta bertsiorik gehien izan duen kantetako bat bilakatu da, oso talde ezberdinek kantatu baitute, Koma nafarrek esate baterako. Bittor Kapanagaren hitzak dira. Araba Euskaraz antolatzaileek CD bat kaleratu dute 12 bertsioekin. "Hamabi bertsio horiek propio CDrao grabatuak izan dira. Bertsio gehiago ere badira,



noski", esan zuen **Ainhua Uriarte** ikastolako lehendakariak. Tartean Esne Beltza, Mielotxin eta Betagarri ere ikus daitezke eta herrian hain famatua den Pirulo Txou ere bai. Audio Ikastolak Araba Euskaraz girotzeko antolatut dituen ekitaldietan etengabe nabaritu da iraganaren eta etorkizunaren artean oreka bat lortu nahia, "BAGARE" lelo nagusiaren jarraipena ere hauxe baita: "IZAN

ZIRELAKO GARA, GARELAKO IZANGO DIRA". Horrexegatik, ibilbidearen irekiera Galmakan egingo da, auzo horretan zabaldu baitzuen 1960an Joseba Mirena Errazti enpresari abertzaleak Arabako lehen ikastola. Haren familiak eta Audio Ikastolaren bultzagile eta zuzendari izan zen Iñaki Mendigurenen senidekoek ere jasoko dute eguerdian omenaldia. Iraganarekiko begirune hori nabari da

jantzien diseinuan ere, modako elastikoekin batean Bai Euskarari kanpainarako Nestor Basterretxeak diseinatu zuen elastikoa (elastikoa ez du Nestorrek diseinatu, "logoa" bai ordea) berrargitaratu baitute. CDaren azala edo leloa egiterakoan ere orain 40 urteko diseinuaren ukitua nabari daiteke.

Gaur, Audio Ikastolak 753 ikasle ditu, eta Gasteizko Armentiarekin batean herrialdeko ikastola handiena da. "Herria bera ere bitxia izan da. 50ko hamarkadaren bukaeran 3.000 bizilagun izango genituen, eta oso urte gutxian 18.000ra pasatu ginen etorkinen uholdearekin. Hala ere, lehen hauteskundeetan boto abertzalea gailendu zen", gogoratu zuen **Juankar Bermejok**.

PARKE FAMATUA
Ibilbidea urbanoa eta laburra da; herriko plazan hasi eta Isasi auzoraino luzatzen da (lau kilometrora ez da iristen). Ibaia, trenbidea eta errepidea saihestu eta aparkalekuak industria gunera eraman dituzte, lasaitasuna lortzearen. Herriko gun

nagusiak baliatuko dituzte, Lamuza parkea esate baterako, Urquijo markesaren jauregiaren inguruan dagoena. "Parke botanikoa da, Euskal Herriko garrantzitsuenetakoa. Hogeita hamar bat lorezain zituen bere garaian parkea zaintzen markesak. Bere arrosa mota batek irabazi zuen Londresen nazioarteko txapelketa bat", gogoratu zuen Juankar Bermejok, herriko historia gutxik bezala ezagutzen duen ikastolako zuzendariak. Urquijotarren leinua XIX. mendean aberastu zen eta Audioko jauregian egiten ziren festa ikusgarrietara Alfonso XIII bera etorri ohi zen. "Urquijo bankua leinu horrek sortu zuen, eta Renferen akzionista nagusia izaki, herri honetan tren guztiak geratzen ziren", jarraitu zuen.

Egia da Isasi auzoaren ondoko guneari gazte kutsua emango diotela, han antolatuko baitira kontzertuak (Ze satek, Gubernos etab), baina parkean ere The Spanteens taldeak joko du eta plazan

ARABA EUSKARAZ IRANUNKORREKO TALDEKIDE BATZUK LAUDIO IKASTOLAKO PATIOAN. EZKERRETIK HASITA, LEHEN ILARAN, MADA, AINHOA ETA ANDONI. ATZEAN, JUANCAR, ZALOA, ANJEL, AINIZE ETA ITZI. "IZAN ZIRELAKO GARA; GARELAKO IZANGO DIRA. BAGARE!" IRAGANA ETA ETORKIZUNA. EKAINAREN 19AN, ARABAKO IKASTOLEN JAI NAGUSIA OSPATUKO DA, LAUDION.

"Dirurik gutxien ematen duen ikastolen jaia da ezbairik gabe, eta premiak izugarriak dira. Euskaltzaleek ohartu behar dute laguntza ezinbestekoa dugula gure proiektua aurrera ateratzeko. Zazpigarren alabarenak egia izaten jarraitzen du".



▲ Sokaidek eta Nahixanek. *“Gune guztiak guztientzako izatea nahi genuke”*, esan zuen **Anjel Olalde**. Baina arteaz bakarrik ezin gara bizi, eta bazkaria (arropa eta oilaskoa) herriko plazan antolatuko da.

HILERO 19AN

Araba Euskaraz girotzeko egin dituzten ekitaldiez galdetu, eta ikasle ohiek egin zuten bazkaria aipatu digu lehenik ikastolak lehendakariak, Ainhoa Uriartek, bera ere ikasle ohia delako beharbada. *“Ikasturte bakoitzeko pertsona bat aurkitu eta lantalde bat osatu zen; honela, martxoaren 19an 400 lagun inguru bildu ginen. Festa eguna 19an izango denez, hilabete bakoitzeko 19an edo inguruko egun batean ekitaldi handi bat egiten saiatu gara. Bazkari horri esker ikasle ohien datu-basea eguneratu, eta festa eguneko premietarako laguntzaile taldeak osatu ditugu”*, esan zuen Uriartek.

Hilean behingo ekitaldi horietako batzuk xumeak izan dira, hala nola, Gaztetxean kontzerturen bat, umeentzako ikuskizunen bat, ardo dastaketa Mikel Garaizabalekin. Beste batzuk, hala ere, jendetsuak izan ziren, herriko plazan egin zuten arropa desfilea edo bideo grabaketa bera, esate baterako. Azkena burututako ekitaldia, maiatzaren 18an Eneko Atxarekin eginiko sukaldaritza ikastaroa izan zen.

ZAZPIGARREN ALABA

Zaloa Aldatz gerenteak agertu zigunez, ikastolak 40 urte betetzeak baditu bere alde makurrak ere.

ARABA EUSKARAZ DENDA ZABALIK IZAN DA URTE OSOAN HERRIAREN ERDIALDEAN. BERTAN ARDOA ERE SALGAI IZAN DUTE ETA “BAI EUSKARARI” LOGO ZAHARRAREKIN ATERATAKO MATERIALAK ARRAKASTA ITZELA IZAN DU.

“Orain dela 25 bat urte jaso zen eraikinak berrikuntzak behar ditu. Ez dugu inbertsio potolorik egin nahi, baina eraikuntza erabat eraberritu nahi dugu”, esan zuen.

Eraikin nagusitik gertu beste bi txiki dituzte, hala nola, Laudio Txiki izeneko haurtzaindegia eta HHko bigarren zikloa dute bestean. *“Udalarenak dira biak eta berrituta daude; eraikin nagusian sartuko ditugu irabaziak. Aitzindariak izan gara arlo askotan, teknologia berrietan esate baterako, baina azpiegitura zaharkituak ditugu. Gurasoen auzolanari esker itxura eman diogu eraikinari, baina barruan lan asko dago egiteko”*, erantsi zuen.

Anjel Olalde gogoratu zuenez, honetan ere arabarrak ateratzen dira galtzaile. *“Dirurik gutxien ematen duen ikastolen jaiak da ezbaierik gabe, eta premiak izugarriak dira. Euskaltzaleek ohartu behar dute laguntza ezinbestekoa dugula gure proiektua aurrera ateratzeko. Zazpiagarren alabarenak egia izaten jarraitzen du. Bestalde, euskararen erabilera oso urria da, eta egun hori bultzada bat emateko baliatu nahi genuke”*, esan zuen. •



“Festa eguna 19an izango denez, hilabete bakoitzeko 19an edo inguruko egun batean ekitaldi handi bat egiten saiatu gara”.





Galmakakoa, utopia batetik jaiotako ikastola

SORTZAILEAREN NORTASUNAGATIK ETA TESTUINGURUAGATIK, GALMAKAKO IKASTOLA (LAUDIOKO GAURKO IKASTOLAREN AURREKARIA IZAN ZEN, BESTE IKASTOLA BAT IZAN ZEN) DA BITXIENETAKO. JOSE MARIA ERRAZTI (ERRAZTI TAR JOSEBA MIRENA IDAZTEN ZUEN BERAK) ENPRESA-GIZON ABERTZALEAK IREKI ZUEN 1960AN. BERE IDEARIOARI JARRAIKI, LAUDIOKO GALMAKAKO ERAIKI ZUEN, AUZOAREN BAITAN. ETXEAK EUSKAL KUTSUKOAK ZIREN, ELIZAKO HORMA-IRUDIAK JOSE SARRIEGI MARGOLARI ABERTZALEAK MARGOTU ZITUEN; IRUDI HORIETAKO BATEAN EUSKAL SANTU, MARTIRI ETA DOHATSU GUZTIAK AGERI DIRA.

JOSEBA MIRENA ERRAZTI. Galmakako ikastolaren sortzailea, bilbotarra zen, abertzalea eta kristaua. 1923an, 33 urterekin, Bizkai Buru Batzarreko idazkaria zen; hamar urte geroago, gerra pizteko pare bat urte falta zirela, EAJtik banandu eta Euzko Mendigoizale Batzara pasatu zen, Arregi, Gallastegi eta beste zenbaitekin batera, Jagi-Jagira, alegia. Kirikiñorekin ikasi zuen euskara berak, baita arreba Karmelek ere. Hau Emakume Batzako idazkaria izan zen. Joseba Mirena Erraztik euskarazko klaseak ematen zituen Euzkaltzale Bazkunak. Ez da harrizkoa, beraz, 1950ean bere enpresa (trenbideak egiten dituen JEZ) Bilbotik Laudiora aldatzea erabaki zuelarik, ingeniari eta lantegiko arduradunentzat auzo "euskaldun" bat egin nahi izana. Gauzak horrela, auzoa euskalduna izateko zer berme hoberik seme-alabentzat ikastola bat zabaltzea baino. 1960an gertatu zen hori. Jose Maria Erraztik familiarentzat etxe bat ere eraiki zuen auzoan. Lau urte geroago, 1964an, hil zelarik, Txaber semeak hartu zuen enpresaren gidaritzeta eta ikastolaren ardura. Txaber Errazti (Errazti tar Txaber idazten du berak) eta Miren Edurne Olartekoetxea Galmakako etxe horretara ezkondu ziren, eta orain Bilbon bizi badira ere, askotan etortzen dira, auzoan zenbait seme-alaba bizi baitira.

"Aitak euskal giroko auzo bat eraiki nahi izan zuen; Eugenio Arraiza arkitekto nafararekin jarri zen harremanetan eta euskal estiloko etxeak diseinatu zituzten. Guztira hamabi etxe dira, hogeita lau etxebizitza. Frontoia gehitu zioten,

eliza altxatu eta, testuinguru horretan, ireki zuten ikastola. Audio erabat erdaldunduta zegoen orduan, eta utopia bat gauzatu nahi izan zuen gure aitak: euskal auzo bat sortu nahi izan zuen", hasi zen kontatzen Txaber.

"Aitaginarebak burua altxatu eta gauzak nola aldatu diren ikusiko balu, poz ederra hartuko luke, berak abiarazi zuen bideak sekulako emaitzak eman baititu. Orain, Laudiora jaitsi eta gurusoak eta umeak euskaraz hitz egiten entzuten ditugunean, hunkitu egiten gara", erantsi zuen Miren Edurnek.

Agurtzane Alberdi izan zen Galmakako ikastolako lehen andereñoa, Nekane Zaballa izan zen bigarrena, eta Begoña Isuntza hirugarrena. *"Andereñoek gure etxean bazkaltzen zuten, eta harreman estua izan genuen. Nik lehendik banuen harremana Bilboko lehen andereñoekin. Tere Rotaetxe eta Julita Berrojalbiz lagunak nituen, eta Lauro sortu zutenean klase batzuk ematen ere aritu nintzen. Ni neu bilbotarra naiz, Abandokoa. Aitak askotan gogoratzen zidan Sabino Arana bataiatu zuten ponte berean bataiatu nindutela ni",* jarraitu zuen Miren Edurnek.

Galmakako ikastola 1960an ireki zen, 15 bat umerekin; tartean Urtsa Errazti zegoen, seme zaharrena. Elizaren katekesi gisa legezatu zuten, eta Txaber Errazti bera ibiltzen zen Gasteizera joan-etorrian. *"Jainkoak bakarrik daki zenbat itzuli egin nituen. Herrian, Laudion, bazegoen taldetxo bat ikastolaren alde lan egiten zuena, eta tartean Pablo Gorostiaga zegoen, gero alkate*

izango zena. Dozena bat urte eman genituen ikastolarekin lanean, eta, 1971ean, herrian ikastola zabaldu zenean, gure umeak hara bideratu genituen. Eraikin berria egin bitartean goiko mailaren bat hemen genuen", gogoratu zuen Txaberrek.

Semeak, Txaberrek, aitaren ideiei eutsi die. Abertzale suharra da. Gerra ondoan espetxea probatu zuen eta, hark bezala, euskara garbizalean hitz egiten du.

"Ikastolan behartuta zeuden Espainiako bandera eta Francoren argazkia edukitzera. Gainetik ikurriña jartzen zioten banderari eta Sabino Aranaren argazki bat Francori, eta ikuskariren bat zetorrela jakin orduko, orduan egiten zuten aldaketa", gogoratu zuen emazteak.

Oraindik etxean gordeta dute ikastolan urte horietan erabilitako material didaktikoa. Badute txikinek erabiltzen zuten "Idaztiya" bat, Julene Azpeitiak egin. Azalean beren etxea ageri da, Olagane. Liburua irakurtzen ari dira Urtsa, Txaber eta Idoie, seme-alaba zaharrenak. Altuna izeneko batek idatzitako ipuinak ere erabiltzen zituzten; beste zenbait arlotako materiala itzulia edo egokitua zen.

Auzo hori beste zenbait gertakarien agertoki ere izan zen. 1967an, esate baterako, jaialdi handi bat egin zen eliz atarian, eta bertan Laboa, Lete, Lertxundi, Irigaray eta Natxo eta Itziar izan ziren kantuan. Ez Dok Amairu sortzeko urtebete falta zen, baina talde famatuko kideak han bildu ziren.

LAUDIO SE PREPARA PARA LA FIESTA

La proximidad de Bilbao por tren y su accesibilidad por autopista tanto para los que vengan de Gasteiz como de Donostia hacen prever que la edición de Araba Euskaraz de este año en Laudio sea éxito. Con esas previsiones han preparado un circuito urbano que aprovecha los espacios de esparcimiento de la localidad, tales como la plaza o el parque de Lamuza, uno de los jardines botánicos más

importantes de Euskal Herria, obra de la familia Urquijo. Laudio Ikastola cumple 40 años este año y ha sido el motor de la euskaldunización de la localidad. Araba Euskaraz homenajeará a los promotores de la ikastola de Galmaka (precursora de la actual), que la familia Errazti creó en la urbanización de ese nombre, y a la familia de Iñaki Mendiguren, director durante años de la ikastola.

LAUDIO EN PLEINS PRÉPARATIFS

La proximité de Bilbao par train ou par l'autoroute avec Gasteiz ou Donostia laisse penser que l'édition de Araba Euskaraz 2011 sera un succès. Tout le long du circuit urbain de cette année, des espaces de détente comme la place et le parc de Lamuza, l'un des jardins botaniques les plus grands d'Euskal Herria, œuvre de la famille Urquijo.

L'ikastola de Laudio qui fête 40 ans cette année a joué un rôle important dans la réappropriation de l'euskara dans la localité. Araba Euskaraz rendra hommage aux figures pionnières de l'ikastola de Galmaka (ikastola précurseur), la famille Errazti et la famille de Iñaki Mendiguren, directeur pendant de nombreuses années.

TXABER ERRAZTI-K. JOSEBA MIRENAREN SEMEA, MIREN EDURNE OLARTEKOETXEA EMAZTEAREKIN FAMILIA HANDIA SORTU ZUTEN. ATZEAN ALABA GAZTEENA, SUHIA ETA BI BILOBA. "UMIEN ADIZKIDIA" LIBURUAREN AZALA. GALMAKA IKASTOLAKO HAURENTZAT AZPEITIA TAR JULENEK, 1961EAN, IDATZIA.



URRETXINDORRA, 10 URTE DRAMATIZAZIOA LANTZEN

Antzerkia eduki kurrikular gisa jorratzen dute LHko hirugarren zikloan

Ez dira aktore frustratuak, ez baitira inoiz talde batean ibili. Itsaso Gutierrezek eta Juli Cuestak ez zuten aurretik dramatizaziorik landu. Baina orain hamar urte, Urretxindorra Ikastolan tutoreak zirela hasi ziren gaur ikastolako Orientatzailea den Juan Zuluetaekin batera, ikasleekin antzezlanak prestatzen eta hainbat orduko lanak arrastoa utzi die: adierazpen bizikoak dira eta komunikatzaile onak. Biak dira Usansolokoak.

“Egia da gure ikastolatik antzerkiaren alorrean lan egiten duen jendea atara dela. Ander Rovirak ‘Zigortzaileak’ filmean hartu zuen parte eta Josu Melerok ‘Qué vida más triste’ telesail arrakastatsuan, bi adibide aipatzearren. Baina gure helburua ez da, noski, profesionalak ateratzea; guk bilatzen duguna zera da, hots, antzezlan baten prestaketan ikasle guztiek parte hartzea eta, bidenabar, ahozkotasa eta memoria landu, gorputz adierazpena garatu, lotsak gainditu eta elkar-lana bultzatzea. Egia da antzerkia orduz kanpoko ekintzetan ikastola gehiagotan lantzen dela, baina guk ikastolako curriculumean sartzea lortu

dugu”, hasi zitzaigun **Itsaso Gutierrez**. Maila bakoitzeko ikasleak hiru taldetan banatzen dituzte, eta Arte Hezkuntzari astero dagokion ordua erabiltzen dute txandaka Plastikak, Dramatizazioa edo Musika lantzeko. Elena Viar etapako koordinatzaileak martxan zegoen lana proiektua bezala finkatzea bultzatu zuen, antzerkiari jarraipena emateko asmoz. Gaur egun, lau tutorek hartzen dute parte proiektuan: aipatutako biek, Luis Anjel Hernandezek eta Jone Pinedok.

“Hirugarren zikloan lau irakasle gaude, eta Plastikako eta Musikako orduak Arte Hezkuntzan elkartu eta antzerki bat prestatzen hasi ginen orain hamar urte. Horiek horrela, berehala ohartu ginen

dramatizazioak baliabide izugarriak eskaintzen dituela hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna lantzeko. **Bi lerro ditugunez, bi gela horietatik, 50 ikasle horietatik, hiru talde ateratzen ditugu, eta Plastikak eta Dramatizazioa txandakatuz egiten dugu lan. Tarteka musikal bat ere prestatzen dugu Musika ere modu atseginean jorratzeko. Talde bakoitzak hiru hilabetez behin antzezlan bat prestatzen duenez, hiru antzezlan egiten ditugu urtero”,** jarraitu zuen **Juli Cuestak**.

Ikastolako jaialdiak, Inauteriak, Olentzero edo Ikastolaren Eguna baliatu ohi dituzte antzezlan horiek agertokian jartzeko. “Kafe Antzokiak ere Haur Antzerki



Topaketak antolatu ohi ditu tarteka, eta parte hartu izan dugu. Udalak antolatu zituen topaketa batzuetan ere parte hartu genuen, eta sari moduan Arriagan gurasoen aurrean antzezlan emateko aukera

eskaini ziguten. Hori izan da gainera, Arriaga betetzea alegia, lortu dugun saririk handiena, baina hori bezain ederra izaten da guretzat haurrek nola ikasten duten ikustea”, jarraitu zuen Itsasok.

MIKEL AYESTA ZUZENDARIA, ELENA VIAR TUTOREA, JABI ZABALA ETA OSTAZKA PINEDO IKASTOLAKO PATIOAN IKASLEZ INGURATUTA. BEHEKO ARGAZKIAN, JULI CUESTA, LUIS ANJEL HERNANDEZ, JONE PINEDO ETA ITSASO GUTIERREZ IRAKASLEAK. ELENA VIARREKIN BATERA, PROIEKTUAREN MUMAK AZALTZEN.



MAILA BAKOITZEKO IKASLEAK HIRU TALDETAN BANATZEN DIRA, ETA ARTE HEZKUNTZARI ASTERO DAGOKION ORDUJA ERABILTZEN DUJE TXANDAKA PLASTIKA, DRAMATIZAZIOA EDO MUSIKA LANTZEKO.

Ez da Arriaga bezain dotorea, baina antzezleku polita dute jangelan, agertoki eta guzti, eta Antzerki Gela bat ere badute entseguak egiteko. Gela zabal eta eroso da, eta armairuetan gordetzen dituzte arropak eta atrezzoak.

Azken urteotan musikalak egiten ere hasi dira, eta antzezpenez gehienak HH eta LHko ikasleen aurrean egiten dira. Urretxindorra ikastola, bestalde, Kafe Antzokiak eratu duen antzerki proiektu batean dago sartuta. LHko 1.2.3. eta 4. mailan tailerrak antolatatu dituzte eta aktore profesionalak etortzen dira klaseak ematera. *“Horiek ere antzezlari bat prestatu dute eta Haur Antzerki*

Topaketan hartu zuten parte. Aktore horiek tailerretan egiten duten lanaren emaitzak guk jasoko ditugu aurki. Seguru gaude”, erantsi zuen Julik. •

“LH Hirugarren zikloan lau irakasle gaude. Plastika eta musikako orduak Arte Hezkuntzan elkartu eta antzerki bat prestatzen hasi ginen orain 10 urte. Horiek horrela, berehala ohartu ginen dramatizazioak baliabide izugarriak eskaintzen dituela hizkuntza eta komunikazio gaitasunak lantzeko”.

Auzo berri baten bihotzean

ORAIN 38 URTE SORTU ZEN URRETXINDORRA IKASTOLA SAN ADRIAN AUZOAN; inguru horiek ez ziren orduan meategiek zulatutako lur eremuak baizik. Gaur Mirabilla auzoa, Bilboko auzo berririk ederrenetakoa, bertan eraiki dute, eta Urretxindorra Ikastolak ez du eskabideari erantzuteko adina lekurik. *“Hirugarren lerro bat ere ireki genezake, baina eztabaidatzen ari gara. Gure helburua ikastola auzoari irekitzea da. Lehen Bilbo oso ikertzen zitzazkigun ikasleak autobusez. Baina gero eta gehiago Miribillako ikasleekin ari zaigu betetzen ikastola eta auzoan bertan txertatzen ari gara. Joan den urteko irailan hasi ziren auzoan jaiak antolatzen eta ikastola ere sartu da horretan”,* hasi zitzaigun **Mikel Ayesta** zuzendaria. Altzari enpresa baten eraikina baliatu zuten ikastolak urte askoan, baina 2000. urtean erabat berritu eta ondoan jolastoki ikusgarri batzuk egin zituzten. Abusu, Kirikiño eta Urretxindorra dira Elkartean dauden Bilboko hiru ikastolak. *“Harrobia fundazioa berehala izango dugu martxan. Proiektu hau Urretxindorra Ikastolak eta Bizkaiko beste ikastola batzuek eratu dute, eta bertan Lanbide Heziketako hainbat ziklo eskainiko dira euskaraz. Urretxindorrek 850 ikasle ditu gaur eta Ikastolen Elkartetik bultzatutako proiektu guztietan dago sartuta. Eskolaz kanpoko ekintzetan esperientzia zabala dute. 650 ikaslek hartzen dute parte. Gure ikasleek %90k ikastolan bazkaltzen du, eta horrek, hainbat kirol ekintza eta euskal kulturari lotutakoak garatzea ahalbideratzen du. Euskal dantzak, samba eta batukada ere, esate baterako, lantzen dira”,* esan zuen Ayestak. •

UNA IKASTOLA SIN MIEDO ESCÉNICO

Itsaso Gutierrez y Juli Cuesta, profesoras de Primaria en la ikastola Urretxindorra de Bilbo, junto con el actual Orientador de la ikastola, Juan Zulueta, comenzaron hace diez años a trabajar en teatro para una representación del Olentzero y han terminado incluyendo la dramatización en los contenidos curriculares. Todos los alumnos participan en la preparación y puesta en

escena de una obra cada trimestre y han realizado además varias musicales, entre ellas una adaptación de “Guazen”, que produjo ETB. Los objetivos de la experiencia son sobre todo pedagógicos. El teatro, según estas dos andereñes, sirve para mejorar la expresión oral y la memoria, ayuda a superar los miedos y enseña a trabajar en grupo.

UNE IKASTOLA À L'AISE SUR SCÈNE

Itsaso Gutierrez et Juli Cuesta, enseignantes à l'ikastola Urretxindorra de Bilbo, ont travaillé il y a dix ans sur une pièce de théâtre pour une représentation d'Olentzero. Cette année, tous les élèves participent à la préparation et à la mise en scène d'une nouvelle oeuvre par trimestre. Ils ont aussi réalisé des comédies

musicales dont l'adaptation “Guazen” produit par ETB. L'expérience est surtout pédagogique. Selon ces deux enseignantes, le théâtre aide à l'amélioration de l'expression orale, il est un bon exercice de mémoire, il aide l'élève à surpasser ses peurs et leur apprend à travailler en groupe.

gi puzkoa:



50 URTE, ETA INDARREAN

Santo Tomas Lizeoak sekulako egitarauarekin ospatu du mende erdia

Euskararen munduan lobby txikiren bat egotekotan, Santo Tomas Lizeoko kideena da, unibertsitatean, komunikabideetan, literaturan, kirolaren arloan, edonon aurkitzen baitira ikastola honetako guraso edo ikasle ohiak. Denak mobilizatu dituzte 50. urteurrenaren egitaraua antolatzeko.

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela esan ohi da. Santo Tomas Lizeoaren kasuan irudiek baino gehiago balio dute zifrek: aurten 1.729 ikasle ditu, 160 profesional lanean, 1.094 familia eta 4.969 bazkide. 50 urteotan 10.000 ikasletik gora pasatu dira, ia 5.000 familia. Horrek ikastolako kideen komunitate zabala sortu du; hain zabala, non dendetan eta zerbitzu pribatuetan onurak izango dituen Lizeokideen txartela aterako baitute ikasturte bukaeran. Mende erdia ospatzeko

egitarauari amaiera emanez Kursala bete zuten maiatzaren 21ean. 50 urteko historia luzea biltzen duten bizipen liburua, bideoa, ikastolaren abestia eta beste hainbat gauza kaleratu dituzte, eta ekainaren 11n Kilometro Txiki bat antolatuz ospatu dute Ikastolaren Eguna.

KURSAALA BETETA

Itziar Beristain irakaslea izan da, Pello Goikoetxea lehendakariarekin eta Santos Sarasola zuzendari ohiarekin batean Kursaalgo ekitaldia antolatzen aritu

dena, eta berak laburbildu dizkigu bi orduko emanaldiaren zertzeladak. "Lizeoko kide diren guztiei zuzendutako ekitaldi bat egin nahi genuen eta, aurrez ikusten genuen bezala, une hunkigarri asko izan ditu. Ikasle eta ikasle ohi andanak hartu du parte. Antzerkia, musika eta bertsoa izan dira protagonista. San Sebastian eguneko danborradan parte hartzen duten hiru konpainia ditugu, umeena, gazteena eta helduena. Denak, noski, ez ziren agertokian kabitzen eta

ordezkaritza bana igo zen Konportako Martxa, Bernar Rementeria irakasleak konposatutako doinua jotzera. Antton Valverdek (Xabier Euskitzeren hitzekin) urteurrenerako egin duen kanta ere, 'Gora Lizeoa' izenekoa, interpretatu du ikasle talde baten laguntzarekin. Easo Abesbatzari ere leku handia egin diogu elkarren artean kolaborazio-akordio eta harreman sendoak baititugu, eta, nola ez, Lizeoaren ibilbidea biltzen duen bideoari ere bai. Bideoaren une hunkigarri

bat aipatzearen, logo biziarena aipatuko nuke, Lizeoko ikasle eta irakasle guztiak, orotara 1.700 lagun, bildu baikekituen marrazki hori osatzeko", esan zuen Itziarrek. Ekitaldiaren ondoren afaria egin zuten Kursalaren bertan, Ni Neu jatetxean.

LIBURU IKUSGARRIA

Ez da ohiko historia liburua, ez da argazki zaharrak bilduz osatutakoa ere. Zerbait landuagoa da, Santo Tomas Lizeotik igaro diren belaunaldiaren bizipenak biltzen baititu.



SANTO TOMAS LIZEOAK AURTEN 1.729 IKASLE DITU, 160 PROFESIONAL LANEAN, 1.094 FAMILIA ETA 4.969 BAZKIDE. 50 URTEOTAN 10.000 IKASLETIK GORA PASATU DIRA, IA 5.000 FAMILIA.

Bi guraso (Antton Valverde eta Miren Azkarate), bi ikasle ohi (Arantzazu Zugasti eta Itziar Iriondo) eta Begoña Alvarez, Jexusmari Mujika, Nerea Eizagirre eta Txomin Sagarazu irakasleak aritu dira lanean zutebetuz, Iñaki Lekuona zuzendari ohiaren ardurapean.

"50 urteko ibilbidea islatu nahi genuen, partaide izan direnei ahotsa eskainiz. Irakurterrazagoa izan zedin generoak txandatu ditugu, hala nola, erreportajeak, mahai-inguruak eta artikulua. Hamarkada bakoitzeko guraso, irakasle eta ikasle ohiak agertzen dira", hasi zaigu kontatzen **Begoña Alvarez** irakaslea. 256 orriko liburua euskaraz egina dago, eta lehendakariaren Agurra Lizeoan lantzen diren beste lau hizkuntzetan (gaztelania, ingelesa, frantsesa eta alemana), laburpenak egin badituzte ere.

Liburuan txertatuta CD-ROMa banatu dute, eta bertan, liburuko edukiez gainera, bideoa, Konportako Martxa eta Antton Valverdek urtemugarako egin duen kanta daude, argazki gehiagorekin batera. Aleren bat eskuratu nahi izanez gero, jarri harremanetan **Santo Tomas Lizeoko idazkaritzarekin: 943 216 044 (10 €).**



Dena den, liburuaren benetako luxua partaideen nomina da. Azala, esaterako, Javier Arozena margolariak egin du, barruan Dani Fanoren komiki bat aurki daiteke edo Elena Odriozolaren ilustrazioak edo Harkaitz Cano, Iban Zaldua, Mari Jose Olaziregi, Iratxe Esnaola, Aitzpea Goenaga edo Enkarni Genuaren kolaborazioak, bakar batzuk aipatzearen. Denak lizeokideak dira.

ETA BESTE Iñaki Zubizarreta zuzendariak gogoratu digunez, beste hainbat ekintza burutu dituzte urtean zehar. Kirol taldea eraberrituz hasi zuten ikasturtea (900 kirolari omen dituzte), eta San Sebastian egunarekin



hirugarren Danborrada, batxilergoko gazteena, ere abian jarri zuten. Konportako Martxa estreinatuz, talde osoaren agerraldia egin zuten. *"Oso harro geratu ginen ekintza horrekin. Guztira 400 kide biltzen dituzte hiru konpainiek eta Antiguan barrena erakustalditxo eman genuen"*, dio. Ekainaren 11n Kilometro Txikia egin

zuten, Ikastolaren Eguna ospatzeko modu berri bat. Azkenik, ikasturteari amaiera emateko, *"Lizeoko dendari eta profesionalen batean antolatutako dugun Lizeokide Txartela banatuko dugu, kideentzako onurak izango dituena. Komunitate sentipen hori indartzeko bitarteko bat gehiago izan nahi du"*, esan digu Zubizarretak. •



SANTO TOMAS LIZEOA 1960-61 / 2010-11. LIBURUAREN BATZORDEA. IÑAKI LEKUONA, MIREN AZKARATE, TXOMIN SAGARAZU, ARANTZAZU ZUGASTI, ITZIAR IRIONDO, JEXUX MARI MUJIKA, ANTTON VALVERDE ETA BEGOÑA ALVAREZ.

ALARDE ORGANIZATIVO

Habr  pocas comunidades educativas que tengan un sentido de pertenencia tan acentuado como la del Liceo Santo Tom s. Sea cual sea el  mbito de actividad, siempre nos encontraremos con profesionales que testifiquen con orgullo que estudiaron en el Liceo o que son padres del mismo. La actual direcci n de Santo Tomas Lizeoa calcula que han pasado por el centro m s de 10.000 alumnos y ha movilizado a buena parte de los mismos para celebrar con gran cari o el 50 aniversario. La publicaci n de un libro que recoge las vivencias y recuerdos de varias generaciones y un acto que llen  el Kursaal han sido los acontecimientos centrales del programa, pero no los  nicos.



C L BRATION EN GRANDE POMPE

Peu de communaut s  ducatives ont un sentiment d'appartenance aussi fort que celle du lyc e Santo Tom s. Quel que soit le cadre de l'activit , nous trouverons toujours des professionnels qui t moigneront avec fiert  qu'ils ont  tudi  ou sont parents au lyc e. Plus de 10.000  l ves sont pass s par le centre. Une bonne partie d'entre eux a  t  mobilis e pour c l brer comme il se doit le 50 me anniversaire. La publication d'un livre retra ant exp riences et souvenirs de plusieurs g n rations et la c r monie au Kursaal ont  t  les  v nements phares du programme.



**GARBERA
ARRASATE**

HEGOALDEKO EUSKALTZALEEN BULTZADA SENTITU DU HERRI URRATSEK

Senperera urtero lanera joaten diren batzuen lekukotasunak bildu ditugu

Hegoaldeko euskaltzaleen presentzia nabarmen gehitu da aurtengo Herri Urratsen. Urte batzuetako beherakadaren ondotik etorri da susperraldia, eta badirudi, gainera, Hegoaldeko ikastoletako guraso gazteen belaunaldi berri bat agertu dela lakuaren bueltan. Baina badaude urtea joan eta urtea etorri hutsik egin gabe lanera joan diren koadrilak ere. Horieta batzuekin hitz egin dugu eta guztiek gauza bera diote: nekosoa da, baina merezi du. Antolatzaileek edizioaren arrakasta nabarmendu zuten. Zikiro, paella eta sagardotegiko bazkari guztiak amaitu ziren.

Jesus Agerre Zugarramurdiko alkateak amona Sarakoa zuen, aita Itsasuko eta emaztea Ezpeletakoa du. Mugaren bi aldetan bizi izan da, beraz, eta urteak dira Herri Urratsen egunean Senperera jotzen dela. "27 urte izango

dira. Baigorriara joaten ginen Nafarroaren Egunean zikiroa erretzera, eta Herri Urratsen bigarren edizioan Senperera joango ginela erabaki genuen. Geroztik ez dugu huts egin", esan zigun. Lehen antxumea erretzen zuten, baina

ogitartekoak egiteko erosoagoak direlako, orain Australiako ardien izterrak erabiltzen dituzte. "Zenbat ogitarteko egingo ziren aurtengoa? Bizpahiru mila. Goizeko 7:30ean hasi ginen lanean eta ordu bietarako dena salduta

genuen", esan zigun. Bi anaia jotzen dira Senperera laguntzaile batzuekin.

IPARRA-HEGOA Hamasei urte dira Iparraldeko Hegoa topaketak Seguran egiten hasi zirenetik eta

harreman estua lortu du Goierriko Iparraldearekin. "Era guztietako harremanak ditugu. Iparraldeko Hegoa topaketak oinarritzkoak izan dira harreman horretan. Topaketak hasi eta pare bat urtera



MUNDIALA IZAN DA AURTENGO HERRI URRATS-AT EGUZKITSUA IZANAGATIK ETA EGINDAKO KANPAINA EDERRAGATIK LAGUN ANDANA BILDU DA SENPEREN. IPARRALDEKO IKASTOLEN IZENEAN ESKER MILA HURBILDUTAKO GUZTIOI.



Argi Berri elkarteko kideak dira Senperera lanera joaten direnak.

TAFALLATIK SENPERERA
Tafallan 1997an egin zen Nafarroa Oinezen txosnen arduradun izan zen **Mikel Markina**. Han ezagutu zuen Zapiain sagardoazale familia, eta haiekin lan egitera joan da geroztik Herri Urratsera. “Koadrila bat joaten gara Zapiainen barran eta jantokian bazkariak zerbitzatzera. Guk bospasei orduz egiten dugu lana, baina bidean joan-etorrian beste lau bat ordu galtzen ditugu. Hala ere, oso gustura itzultzen gara, Seaskaren alde lan

Goierriko ikastolek Urruñako eta Ziburuko ikastolekin konpromiso bat hartu zuten elkarlana bultzatzeko, haien artean dirua bildu eta trukeak eratzeko. Lazkao, Beasain eta Ordiziako ikastolak alde batetik, eta bestetik Urruñako Hazia elkartea izan dira harreman hori

landu dutenak. Guk ibilaldiak antolatu ditugu Iparraldera eta hemen jaialdiak antolatu edo udaletxe zein enpresekin lan egin ere bai diru pixka bat biltzeko. Ikasle trukeak ere egin ditugu”, esan zigun **Agus Zinkunegik**. Hiru ikastoletako gurasoen talde bat eta Ordiziako

egiteak bete egiten gaituelako. Neurri handi batean gure antzeko egoeran ikusten ditugu, eta horregatik sentitzen dugu lagundu egin behar diegula”, esan zuen. •

MILAKA EUSKALTZALE
SEASKAREN ALDE
“MILAKA HERRIRATZ BILDU
ZEN BAIONAN
MAIATZAREN 30EAN
SEASKAK DEITUTAKO
MANIFESTAZIOAN,
MURGILTZE EREDUAK
BEHAR DITUEN
BALIABIDEAK ESKATZEKO,
“POSTU MURRIZKETARIK
EZ KALITATEKO
HEZKUNTZARI BAI” ZIOEN
HEZKUNTZAK ETA TARTERKA
PANKARTAK “HITZA BETE”
OIHUA ENTZUTEN ZEN,
FRANTZIARAKO HEZKUNTZAK
EZ DITUELA HARTUTAKO
KONPROMISOAK BETE
GOGORATZEKO”.

ARGAZKIA: DANIEL VELEZ, pba



Serge Betelu (Seaskako diruzaina)

“Kolegioa, Seaskaren bulego nagusiak eta irakasleen formazio gunea ezarriko dira Kanbon”

Xalbador kolegioa berritzea eta Seaskaren egoitza Pentzea etxera ekartzea proiektu bereko bi aurpegi al dira?

Bai, bai, proiektu beraren bi aurpegi direla esan daiteke, fase ezberdinetan gauzatuko badira ere. Kolegioa martxan dela lanak egiteak ekarriko dizkigu arazo zenbait. Hasiera batean Pentzea etxearan (La Prairie zen bere izena) zati bat berritu eta kolegioko bulegoak eta zerbitzu batzuk hara ekarriko ditugu. Lizeoko barnetegiak dugu kolegioaren ondoan, eta barnetegiarentzat beste kokapen bat bilatzen ari gara. Barnetegiak utzitako lekuetan aterako ditugu kolegioko gelak aldi baterako, eta horrenbestez, gaur kolegioa dagoen eraikina bota eta bi solairuko eraikin berria jasotzen has

gaitzeko. 2012-2013 ikasturtean hasi nahi dugu lan horiek egiten.

Zenbat ikasle ditu Xalbador kolegioak?

246 ikasle ditu gaur, baina hemendik hiru urtera 300dik gora izango dira; aurreikuspen horrekin ari gara lanean. Oraingo solairu bakarreko eraikinaren ordezkari solairu izango ditu berriak.

Noiz berrituko da Pentzea etxea?

Gaur egun barnetegiak dugu Pentzea etxearan lehen solairuan eta, esan bezala, kolegio berria egiten den



du proiektuak, kolegioa eta etxea barne direla, noski. •

bitartean hor emango ditugu klaseak. Kolegio berria eraiki orduko hasiko gara Pentzea berritzen eta etxe hori bilakatuko da Seaskaren egoitza. Neoeuskalduna esaten zaion estiloko etxea da, garai batean haur gaixoen zentro bilakatzeko eraldatu zutena. Guk jatorrizko

itxura eman nahi diogu eta osorik beteko du Seaskak. Bulegoez gainera, irakasleen formaziorako aretoak aterako dira bertan. Datorren ikasturtean hasiko gara kolegioko zerbitzu batzuk Pentzea etxera aldatzen. 2012-13an hasiko gara kolegio zaharra bota eta berriaren eraikina egiten, eta hirugarren fase batean egingo da Pentzea etxearan eraberritzea. Lau milioi euroko aurrekontua

LOS INCODICIONALES DEL HERRI URRATS

La última edición del Herri Urrats ha logrado recuperar el flujo de euskaltzales de Hegoalde que durante los últimos años había remitido de forma ostensible. Algunos testigos afirman incluso que este año ha aparecido una nueva generación de padres de las ikastolas del Sur. Inmunes a estos vaivenes, hay varias cuadrillas de Hegoalde que acuden

a un año sí y otro también a trabajar en la marcha de la fiesta. Hemos hablado con unos padres de Tafalla que trabajan en el comedor de Zapiain, los hermanos Agerre que preparan el zikiro y una cuadrilla del Goierri guipuzcoano. Todos ellos afirman que, a pesar del cansancio, la experiencia vale la pena.

LES INCONDITIONNELS D'HERRI URRATS

La dernière édition d'Herri Urrats a drainé beaucoup d'euskaltzale d'Hegoalde qui avaient un peu boudé le rendez-vous ces dernières années. De plus, cette année, une nouvelle génération de parents d'ikastola du Sud s'est rendue au lac de Senpere. Hormis ces personnes, il y a des gens d'Hegoalde qui chaque année sont présents pour donner un coup de

main. Nous nous sommes entretenus avec des parents de Tafalla qui servent à la « cantine Zapiain », les frères Agerre qui préparent le zikiro et un groupe d'amis du Goierri. Tous affirment que malgré la fatigue l'expérience vaut la peine.





JUUL KANPAINA, BIZI-BIZIA

16.000 literaturzale ditugu ikastoletan

Mirariz bezala, batere bultzatu beharrik gabe, ari da zabaltzen Juul kanpaina Euskal Herriko ikastoletara. Datuak esanguratsuak dira: 13. edizioa egin dute aurten eta 16.035 ikaslek hartu dute parte beren liburu gustukoenen bozketan.

Liburu eta ilustratzaile gustukoena aukeratzeko ikastoletan egiten den Juul kanpaina ez da botoa ematera bakarrik mugatzen. Urtean zehar girotze lan bat egiten da adin tarte bakoitzaren arabera. Bideo-blogak antolatzen dituzte, glogsterrak, kartelak, puzzleak, musika edo olerki errezitaldiak.

“Proiektua berez joan da zabaltzen, ez dugu publizitaterik egin edo harremanak erabili beharrik izan. Pare bat urtez Nafarroan bakarrik eratu genuen. Irakurzaletasuna

bultzatzeko tresna egokia zela ikusi zuten beste hainbat ikastolatan ere, eta hedatuz joan da. Egia da NIEko Rakel Sueskuneren urte osoko lanik gabe ezinezkoa izan zela aurrera eramatea, bai eta tartean laguntzaile sutsu batzuk ere aurkitu ditugula. Bizkaiko Begotxu Gandiagak, esate baterako, sekulako lana egin du lurralde horretan bozketaren prozesuaz arduratzen, baina guk ahalegin berezirik egin gabe zabaldu da proiektua”, esan zuen Irene Lopez-Goñik, NIEko Pedagogia

arduradunak.

Ideia Herbeheretara egindako bisita batetik ekarri zuen. Han enpresa batek antolatzen zuen bozketeta eta interes jakin batzuk egon zitezkeen tartean. Ikastolen kasuan ez dago argitaletxerik atzean, nahiz eta gehienek proiektuarekiko interes handia agertu duten. “Azken hiruzpalau urtetan argitaratutako liburuen zerrenda eskura dute ikastolek juul web orrian. Zerrenda horiek osatu ahal izateko Madrilgo Kultura ministerioan ISBN erregistroan lan egiten duen

neska nafar baten laguntza izan genuen lehen urteetan, eta geroztik eguneratuz joan gara. Ikastola bakoitzak girotzen du kanpaina, guztietan egoten baita literaturzalea den irakasleren bat. Oso gauza ikusgarriak egiten dituzte ikastola batzuetan, plastika adierazpen aldetik bereziki, haur txikiekin oso garrantzitsua baita ipuinaren adierazpen plastikoa lantzea”, jarraitu zuen Irenek.

Liburu bozkatueneren zerrendak kontuan hartzen dira liburutegietan, hala

nola, gurasoei oporretarako liburuak gomendatzeko orduan. Idazleentzako ere interes handiko ekintza da, oso gutxitan izaten baitute beren liburuen inguruko balorazio eta iritziak zuzenean jasotzeko aukera. Kanpaina urte osoan zehar egiten da, baina apirillean egiten da bozketeta, Liburu Eguna eta Nazioarteko Haur eta Gazteen Literaturaren Eguna ospatzen direnez oso hilabete literarioa delako.

Juul kanpainak, bestalde, hasieratik beste helburu hezitzaile bat ere badu:



JUUL DA IRAKURZALETASUNA BULTZATZEKO URTERO IKASTOLETAN ANTOLATZEN DEN KANPAINA. AURTENGOAN 16.035 IKASLEK PARTE HARTU DUTE. 16.035 IKASLEK PARTE HARTU DUTE. TAFALLAN EGINDAKO EMITALDIA GOIKO ARGAZKIAN.



“Hauteskunde prozesu batean dauden ezaugarri guztiak bete behar izaten dituzte mahaiak antolatu edo begiraleak eta karguak aukeratzera. Umeek oso serio hartzen dituzte kontu horiek. Aurten, esate baterako, Iparraldeko ikastola baten juul ‘interbentore’ lana egin duen neskato batek, hauteskunde prozesuaz galdera interesgarri anitz egin dizkigu. Hala ere, boto elektronikoa ari da nagusitzen, adin batetik gora behintzat, antolaketa aldetik erosoagoa delako. Baina txartelaren bidez ematen den botoak xarma berezia izaten jarraitzen du”, esan zuen Irenek.

Aurten ere sei adin tarte egin dira, eta bakoitzeko liburu irabazlea aipatuko dugu: “Amets

handi bat” (Felipe Ugalde), “Hortza galdu du Jonak” (Josu Waliño), “Nur eta herensugearen tenplua” (Toti Martinez de Lezea), “Nur eta magia-kanpamentua” (Toti Martinez de Lezea), eta “Bilbo samurai” (Fernando Morillo). Zerrenda osoa eta ilustratzaile gustukoena ezagutzeko <http://www.juulkanpaina.net> webgunera jo dezakezue. Sari banaketa (Xabi Oteroren lan bana) maitzaren 18an egin zen Tafallako ikastolan. •

“Ikastola bakoitzak girotzen du kanpaina, guztietan egoten baita literaturzalea den irakasleren bat eta umeek oso serio hartzen dute egitekoa. Informazio gehiago nahi izanez gero: juul web gunean”.

Izaskun Arratibel NIEko lehendakariak Nafarroa Oinezan lekukoa eman dio

Nafarroako Ikastolek Iñaki Perurenari omenaldia eskaini diote

NAFARROAKO IKASTOLETAKO HAMABOST ORDEZKARIK OMENALDI XUMEA ESKAINI ZIOTEN MAIATZAREN LEHEN ASTEBURUAN IÑAKI PERURENA HARRI-JASOTZAILEARI, leitzarrak euskararen eta ikastolen alde eginiko lana eskertzeko. Ikastoletako ordezkariak Leitzatik Uitzirako bide zaharrean dagoen Gorritenea baserria bisitatu zuten, kirolariak bertan jarria baitu harriaren museoa. Iñaki Perurenak berak harri-jasotzearen historiaren berri eman zien, inguruko zelaietan jarriak dituen trikuharriak, zutarriak eta eskulturak ikustera joan aurretik. Eskulturei dagokienez, deigarrienak Pedro I, Nafarroako azken mariskalarena eta harri-jasotzailearen omenez eginikoa dira, azken hau bereziki, zortzi metrokoa baita.

Ondoren, Izaskun Arratibel NIEko lehendakariak Nafarroa Oinezan lekukoa barnean duen koadroa oparitu zion, ikastola guztien izenean. Izan ere, Arratibelek azpimarratu zuenez, *“Ikastolek aspaldiko harreman estua dute Iñaki Perurenarekin. Gure ekitaldietan parte hartzeko prest egon da, oso pertsonaia hurbila izan da guretzat, eta baita euskararen alde ari diren guztientzat ere. Iñaki eredu bat da euskaltzaleentzat, gure herriko hizkuntza eta historia sakon ezagutzeaz gain, hori dena zabaltzen maisua delako; euskararen enbaxadore onenetakoa dugu”*.

Azkenik, Leitzako kirolariak harriak jasotzeko teknikaz azalpena egin ondoren, altxaldi batzuk egin zituen Ikastoletako ordezkarien aitzinean. •

NAFARROAKO IKASTOLETAKO ORDEZKARIAK IÑAKI PERURENAREKIN ZORTZI METROKO HARRI-JASOTZAILEAREN ESKULTURAREN AURREAN



JUUL SIGUE SUMANDO ADEPTOS

Es una de esas ideas que de tan obvia no se le ocurre a nadie. La pusieron en marcha en las ikastolas de Nafarroa y se han ido sumando el resto de los herrialdes. En la última campaña han sido 16.000 los alumnos/as de ikastola que han participado en la elección de su libro y de su ilustrador/a preferido. La iniciativa hace tiempo que despertó el interés de las editoriales y, por supuesto, también de los escritores/as. De paso, sirve para que nuestro alumnado sepa cómo funciona un sistema electoral.



JUUL FAIT DE NOUVEAUX ADEPTES

Le projet initié dans les ikastola de Navarre s'est étendu aux ikastola des autres territoires. Lors de la dernière campagne, 16.000 élèves ont participé à l'élection de leur livre et illustrateur/illustratrice préférés. Le projet a fait son bout de chemin à tel point qu'aujourd'hui il a éveillé l'intérêt des éditeurs, et, par conséquent, des écrivains. Il a aussi permis aux élèves de découvrir le fonctionnement d'un système électoral.

Museo bat baino askoz ere gehiago!



ETORTZEN BAZARA EZ DUZU ALDE EGIN NAHI IZANGO!

- Museoa handitu dugu, GAIA: Energeia eta Natura atal berriekin. **BERRIA**
- 170 esperimentu interaktibo baino gehiago.
- Planetarium Digitala.
- Planetarium Txikia.
- Simulagailua: Errusiar Mendia.
- Animazio ekintzak eta tailerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta.
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ingurune aparta.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren
kutxaGunera**

Zientziaren kutxaGunea

Mikeletegi Pasealekua, 43-45 – 20009 Donostia

Tlf: 943 012 478. www.miramon.org

kutxaespacio@kutxagunea.org

parte de ti

